

MANIFESTUA

Arratsalde on denei, lekaroztarrei, baztandarrei eta Euskal Herriko txoko guztietatik etorri zaretenei, ongi etorri. Gaurkoan, erabakitzeko eskubidearen aldarria egin nahi dugu, lekaroztarren, baztandarren zein munduko herri zein herritar guztien erabakitzeko eskubideari buruz ari garela. Aroztegiako proiektua internazionala dela dioten horiei erran nahi diegu, erabakitzeko eskubidea ez dela bakarrik zein naziotako biztanleak izan nahi dugun erabakitzera mugatzen. Erabakitzeko eskubidea, gure bizitzako arlo guztietara eraman nahi dugu, eramaten ari gara eta eramango dugu gaur hemen bildu garen guztiak.

Lekaroztarrok argi eta garbi erran dugu Aroztegiako proiektua ez dela gure herriarentzat onuragarria den proiektua eta ez dela Lekarozen edota Baztanen nahi dugun garapen eredua. Ezetz erran genuen 2009an herri galdeketa egin zenean, ezetz erran dugu alegazioak aurkeztu ditugun aldiro, ezetz erran genien atzo legez kontrako proiektua onartu zuten, eta orain legalitatea defenditzen dutenei, eta ezetz erran diegu Lekarozko herria, Baztango Udala eta Baztango Batzar Nagusia beren menpe daudela uste dutenei. Hala ere, batzuk entzungor segitzen dute, batere lotsarik gabe lekaroztarren borondatea oraindik zalantzan jartzen. Hasieratik bukaera arte Lekarozko herritarren erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugun arren, eta gai honek hartu duen dimentsioa ikusita, esku zabal jokatzeari erabaki dugu. Baztandar guztion erabakitzeko eskubidea deuseztatu nahi dela ikusita, Baztan mailako herri galdeketa eskatzen dugu. Aroztegiako UGPS/PSISak aurrekari ikaragarria sortuko luke, ez bakarrik Lekarozen eta Baztanen baizik eta Nafarroa guztian. Ez gara Aroztegiako proiektu urbanistikoari buruz bakarrik ari, herritarrok gure etorkizuna nola izatea nahi dugun erabakitzeko eskubideari buruz baizik. Nola erran dezake gobernu “demokratiko” batek ez duela herritarren iritzia jakin nahi edo galdetzea legez kontrakoa dela erran? Jarrera inposatzaile eta paternalista hauen aitzinean guk bide demokratikoa aukeratzen dugu. Galdetzea nahi dugu eta galdetuko dugu, eta berriz ere erakutsiko dugu Baztanen mendeetan egin dugun bezala gure batzarrak, gure herri lurak, gure hizkuntza eta gure bizimodua defendituko ditugula. Ez digutelakoz erranen ez Madriletik, ez Iruñetik, ez nor garen ezta zer nahi dugun.

Baztandar guztiei eskatzen diegu UGPS/PSISa hau gelditzeko eta herri galdeketa egiteko gurekin elkarlanean aritzea, gaur Lekarozen gertatzen dena, bihar Anizen, Arraiozen edota Azpilketan gertatzen ahal delakoz. Elkarrekin erranen diogu ezetz inposizioari, herri lurren ebasteari, eta espekulazioari. Baietz erranen diogun bezala ingurugiroa errespetatzeari, herri lurren defentsari, herriko eskola txikiei, euskarari, eta bertako garapenari buruz bertan erabakitzeari.

AROTEGIAKO UGPS/PSISa GELDITU! HERRIARENA DA HITZA, HERRIARENA ERABAKIA!